

KONPROMISOEN PROPOSAMENA: **UNIBERTSITATEA**

Sar Hitzza

2.003. ikasturteko lehenengo hiru hilabetean, Hezkuntza Deialdia zabaldu zuten Euskal Herria osoko 200 lagunek. Helburua, azken aldi honetan hezkuntza arloan pairatzen ari garen lege eta bestelako neurrien aurrean erantzun eraikitzailea ematea. Hezkuntza Deialdiak bi ekimen jarri zituen martxan: batetik, Iruñean abenduaren 20an burututako nazio manifestazioa. Bestetik, hezkuntza sistema propioaren aldeko protokoloa. Bi ekimen horiekiko gizarteratze lana egin zen azaroan eta abenduan zehar, eta osotara 1.000 atxikimendu baino gehiago bildu ziren. Orain, hezkuntza sistema propioaren aldeko protokoloa eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko tenorea heldu da.

Protokoloaren funtsa sinplea bezain mamitsua da: har dezagun **jarrera bateratua** hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok, ireki dezagun aterki kolektiboa inposatzen dizkiguten hezkuntza planteamenduen aurrean; eta indartu dezagun Euskal Herriko beharretara egokitutako hezkuntza eredua.

2.004. urteko otsailetik ekainera Protokoloa eztabaidatu eta garatzeko prozesua emango da. Metodologia honako hau izango da. Lehenik eta behin, Protokoloaren agiria (bi orrikoa) eztabaidatu eta ontzat ematea. Momentuz 1.000 lagunen atxikimendua dauka aipatu agiriak, baina orain erakundeen eta ikastetxeen atxikimendua bilatuko dugu. Bigarrenik, atxikimendu teoriko hori konpromiso praktikoetan gauzatzea. Hau da, ikastetxe bakoitzean hausnartu eta adostu dadila zer den bertan egin daitekeena.

Argi dago, zentzu honetan, irakaskuntza ez unibertsitarioan unibertsitatean baino aukera gehiago egon daitezkeela Protokoloa garatzeko. Izan ere, lehenengo esparruan, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza egitasmoa dauka, eta bertan eragin dezakegu. Unibertsitatearen kasuan, ordea, antolaketa zurrunagoa da, eta beraz eragiteko aukerak txikiagoak.

Alabaina, horrek ez du esan nahi unibertsitatean ez dagoela zer eginik. Aitzitik, egiteko GEHIAGO dago; eta hau, bi mailatan:

- Batetik, egun dauden unibertsitateei dagokionez, norberak bere esparrutik (departamendua, klasea, fakultateko junta...) egin dezakeena, unibertsitate horietan Euskal Herriak dituen beharren arabera irizpideak lantzeko.
- Bestetik, Euskal Herriaren beharrei erantzun dion euskarazko unibertsitatearen (Euskal Unibertsitatearen) eraikuntzaren bidean, norberak egin dezakeen ekarpena.

Protokoloa unibertsitate esparruan lantzeko orduan, beraz, bi maila horiek hartuko ditugu kontutan.

Egungo unibertsitateei dagokionez

1. **Euskararen normalkuntzaren alde lan egitea:** euskaraz ikasteko, irakasteko, ikertzeko edo bizitzeko dauden zailtasunak eta oztopoak salatuz; hizkuntza eskubideen aldeko mobilizazioetan parte hartuz; euskarazko materialgintza sustatuz...
2. **Ikaskuntzan (lanak egiterakoan), irakaskuntzan (klaseak ematerakoan) eta ikerkuntzan, Euskal Herriko ikuspegia presente izatea.** Euskal Herria osoa izan dadila lurralde-ardatza. Euskal Herri osokoak izan daitezela erabiltzen diren mapak, estadistikak, lege erreferentziak eta bestelakoak. Euskal Herriko adibideak
3. **Euskal herritarroi arrotz zaizkigun ospakizunak aintzat ez hartzea** (urriak 12, azaroak 11, abenduak 6, maiatzak 8), eta beraz egun horietan lan egitea edo ikastea. Horien ordez, Euskal Herriaren ondare kulturalarekin bat datozen egunetan jai hartzea (martxoak 8, ekainak 23, abenduak 3).

Euskal unibertsitatearen eraikuntzari dagokionez

4. **Euskal Unibertsitatearen aldeko dinamika sozialean eta eztabaidan aktiboki parte hartzea.** Zentzu honetan, Euskal Herriak Bere Eskolak “euskal herriak euskal unibertsitatea” izeneko dinamika bultzatzen ari da. Orain arte, besteak beste, honako ekintza hauek egin dira: sinadura bilketa erraldoia (21.000 sinadura), ihardunaldiak Ibaetan, euskal unibertsitatearen aldeko ekitaldia Oñatin... Hurrengo hilabeteotan, “Euskal Unibertsitatea: izenetik izanera” izenburuko agiriaren eztabaida bultzatuko du.
5. **Euskal Unibertsitatea eraikitze bidean martxan jartzen ari diren eta jarriko diren egitasmo praktikoetan parte hartzea,** bai Udako Euskal Unibertsitatean bai honek bultzatu asmo duen euskal unibertsitatearen aldeko egitasmoan inplikatur.